

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

EH BILDU TALDEKO MIKEL OTERO GABIRONDO LEGEBILTZARKIDEAK EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEKO SAILBURUARI, SPRILURREN JABEGOAN DUEN ZUMARRAGAKO EREMU BATEAN PLASTIC ENERGY ENPRESAK DITUEN EGITASMOEI BURUZ EGINDAKO INFORMAZIO ESKAERAREN ERANTZUNA. (12/10/07/02/3047)

1.- Plastic Energy enpresarekin izan al du harremanik SPRILURek Zumarragako ZONA Z5.1 ACERIA1 lur-eremuan kokatzeko? Hala balitz enpresak aurkeztutako dokumentazioa, eskatutako baldintzak eta proposamena jaso nahi ditugu.

Bai.

Honekin batera doakizu instalazio-eskaera eta proiektuaren aurkezpena. Proposamenari dagokionez, une honetan akordio posible bat lortzeko lanean ari dira, bai merkaturatze-formulari dagokionez, bai ekonomia- eta kontratubaldintzei dagokienez.

2.- SPRILUR garatzen ari den Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren zirroborroan espreski Plastic Energy-ren kokapen posibleaz hitz egiten da. Erabaki edo zehaztapen hori kontsultatu da Urola Garaiako Mankomunitatea, UGGASA garapen agentzia, Zumarragako udala eta Urretxuko udalekin?

Urola Garaia Mankomunitatearekin eta UGGASA garapen agentziarekin, ez.

Zumarragako, Urretxuko eta Legazpiko udalekin, hain zuzen ere, balizko kokapenaz hitz egin da, eta, haiekin batera, Zumarragako udalerrian dagoen Aceria 1 Z5.1 izeneko eremuaren garapenari buruzko hitzarmen bat sinatu da. Hitzarmen hori beharrezkoa zen, eremuan garatuko diren jarduerak alde batera utzita.

- 3.- SPRILURek egin al du azterketarik honelako proiektu batek Urola Garaiako Lehiakortasun Estrategian izan ditzakeen eraginetan?
- Ez. Normalean ez dira beste proiektu eta kokaleku batzuetarako egiten.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak eta Zumarragako Udalak agerraldia egin dute eta SPRILURen jabetzekoa den lurretan "Ekonomia Zirkularreko Poloa" txertatuko dela diote eta obrak urrian hasiko direla. Lurrak SPRILURen jabetzakoak izanik, urrirako hasi ahal izango dira obrak? Proiektua aurrera joango balitz zein epe maneiatzen ari da SPRILUR?

Beste lan osagarri batzuk ere has litezke, hala nola eraikin batzuk eraistea edo lurzoruak berriz neurtzeko lan zehatzak egitea. Baina, SPRILURek ez du uste 2023ko urrian urbanizazio-obrak has daitezkeenik.

Eremuan urbanizazio-obrak hasteko, Plan Berezia (gaur egun izapidetzen ari dena) izapidetu eta behin betiko onartu behar da, bai eta JUP eta Urbanizazio Proiektua ere, zeinak, aurreikuspenen arabera, dagokion Ingurumen Inpaktuaren Azterlana izango baitu.

Aldi berean, Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena izapidetzen ari da.

Beraz, eta SPRILURen mende ez dauden izapideak direnez, une honetan ezin dugu epeen aurreikuspen zehatzik ezarri.

5.- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Zumarragako udalarekin egin du hitzarmenik eremu horren erabilerarako?

Ez.

Ezezkoa bada, zergatik esan dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Zumarragako udalak hor kokatuko dela Plastic Energy enpresa eta "Ekonomia Zirkularreko Poloa"?

Ez dakigu. Galdera hori Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Zumarragako Udalari helarazi behar zaie.

Era berean, jakinarazten da SPRILURek ez duela inoiz Zumarragako eremu horretarako "Ekonomia Zirkularreko Poloa" esamoldea sortu

6.- Plastic Energy enpresaz aparte, bestelako enpresen interesa eta aukerak ere aztertzen ari al da SPRILUR? Zeintzuk?

Bai.

Arcelorrek Zumarragan zituen instalazio zaharren eremuan kokatzeko interesa gero eta handiagoa da.

Interes hori ez doa interesdunekiko elkarrizketetatik harago, eta oraindik ez dira berariazko eskaeretan jaso; beraz, ezin da horri buruzko dokumentaziorik aurkeztu.

7.- SPRILURek egin al du azterketarik honelako jarduera batek izan ditzakeen ingurumen – eta osasun – eraginak ZONA Z5.1 ACERIA1 hirigunetik oso gertu dagoela kontuan izanik?

Egiten ari diren ingurumen-inpaktuaren azterketak eremuaren hirigintzagarapenerako eskatzen den izapidearekin zuzenean lotuta daude.

Ildo horretan, une honetan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 27ko Ebazpena dugu, Zumarragako (Gipuzkoa) Z5.1 Altzairugintza eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua egiten duena.



Jarduera-lizentzia lortzeko egin behar diren ingurumen- edo osasun-azterlanak, hala badagokio, jarduera egingo duenak izapidetu beharko ditu, ohiko izapidetze-prozeduran edo ingurumen-baimen bateratuan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 31

Arantza Tapia Otaegi
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEKO
SAILBURUA

SOLICITUD DE INFORMACIÓN DOCUMENTADA FORMULADA POR D. MIKEL OTERO GABIRONDO, PARLAMENTARIO DEL GRUPO EH BILDU, A LA CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE, SOBRE LOS PROYECTOS DE LA EMPRESA PLASTIC ENERGY EN UNA ZONA DE ZUMARRAGA PROPIEDAD DE SPRILUR. (12/10/07/02/3047)

1.- ¿Ha tenido Sprilur contacto con la empresa Plastic Energy para su ubicación en el terreno ZONA Z5.1 ACERIA1 de Zumarraga? En caso afirmativo, queremos recibir la documentación presentada por la empresa, los requisitos exigidos y la propuesta.

Sí.

Adjunto se remite la solicitud de instalación, así como la presentación del proyecto. Con respecto a la propuesta, en estos momentos se está trabajando en alcanzar un posible acuerdo, tanto en lo referente a la fórmula de comercialización, como en lo relativo a las condiciones económicas y contractuales.

2.- En el borrador del Plan Especial de Ordenación Urbana que está desarrollando Sprilur se habla expresamente de la posible ubicación de Plastic Energy. ¿Se ha consultado dicho acuerdo o determinación con la Mancomunidad Urola Garaia, la agencia de desarrollo UGGASA, los Ayuntamientos de Zumarraga y Urretxu?

Con la Mancomunidad Urola Garaia y la agencia de desarrollo UGGASA, no.

Con los Ayuntamientos de Zumarraga, Urretxu y Legazpi, efectivamente, se ha hablado de la posible ubicación y, con ellos, se ha firmado un Convenio referido al desarrollo del ámbito denominado Aceria 1 Z5.1, situado en el municipio de Zumarraga, el cual resultaba preciso, independientemente de las actividades que vayan a desarrollarse en el ámbito.

3.- ¿Ha realizado Sprilur estudios del impacto que un proyecto como este puede tener sobre la Estrategia de Competitividad de Urola Garaia?

No. Habitualmente no se realizan para otros proyectos y emplazamientos.

4.- El Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zumarraga han hecho una comparecencia y han indicado que en los terrenos propiedad de Sprilur se va a incorporar el "polo de economía circular", y que las obras comenzarán en octubre. Siendo los terrenos propiedad de Sprilur, ¿se podrán iniciar las obras para octubre? En caso de que el proyecto prosperase, ¿qué plazo maneja Sprilur?

Podrían iniciarse otros trabajos complementarios, como demoliciones de algunas de las edificaciones o labores concretas de remedición de suelos. Pero, desde SPRILUR, no se considera probable que puedan iniciarse obras de urbanización en octubre de 2023.

Para el inicio de obras de urbanización en el ámbito debe tramitarse y aprobarse definitivamente el Plan Especial (actualmente en tramitación), así como el PAU y el Proyecto de Urbanización que, previsiblemente, llevará asociado el correspondiente Estudio de Impacto Ambiental.

Paralelamente, se está procediendo a la tramitación de la Declaración de Calidad del Suelo.

Por consiguiente, y tratándose de trámites que no dependen de SPRILUR, no podemos establecer, en estos momentos, una previsión precisa de plazos.

5.- ¿Ha firmado algún convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zumarraga para el uso de ese terreno?

No.

En caso negativo, ¿por qué han dicho la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zumárraga que ahí se ubicará la empresa Plastic Energy y el "polo de economía circular"?

Se desconoce. Esta pregunta debe trasladarse a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ayuntamiento de Zumárraga.

Asimismo, se informa que SPRILUR, en ningún momento ha acuñado la expresión "Polo de economía circular" para este ámbito de Zumarraga.

6.- Además de la empresa Plastic Energy, ¿está estudiando Sprilur el interés y las opciones de otras empresas? ¿Cuáles?

Sí.

El interés de diferentes empresas para ubicarse en el ámbito de las antiguas instalaciones de Arcelor en Zumarraga es creciente.

Este interés, no va más allá de conversaciones con los interesados y no se han plasmado aún en solicitudes específicas, por lo que no es posible aportar documentación al respecto.

7.- ¿Ha realizado Sprilur estudios de impacto ambiental y sanitario de una actividad como esta, dada la proximidad de la ZONA Z5.1 ACERIA1 respecto del núcleo urbano?

Los estudios de impacto ambiental que se están realizando, son los directamente relacionados con la tramitación requerida para el desarrollo urbanístico del ámbito.

En este sentido, se cuenta, en estos momentos, con la Resolución de 27 de enero de 2023, del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco, por la que se formula el documento de alcance del Estudio Ambiental Estratégico del Plan Especial de Ordenación Urbana de la zona Z5.1 Acería en Zumarraga (Gipuzkoa).

Los estudios ambientales o sanitarios que, en su caso, deban realizarse en orden a la obtención de la licencia de actividad, deberán tramitarse por quien vaya a realizar la actividad, en el procedimiento de tramitación ordinaria o de Autorización Ambiental Integrada.

Vitoria-Gasteiz, 31 de mayo de 2023

Arantza Tapia Otaegi
CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO
AMBIENTE